



2021EKO MARTXOAREN 10EAN UDALBATZAK IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elkoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Uribarri Urresti, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Fco. Javier Mar Medina, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

EZ BERTARATUAK:

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA: Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko martxoaren 10ean, arratsaldeko 18:30ak direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira Udaletxeko Udalbatzar Aretoan, bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan zehaztutako gaietara buruz hitz egitearren.

1. Aurreko bilkuretako aktak onartzea.

Dioenarekin ados daudenez, 21.01.13 eta 21.02.17 ko aktak onartu egin da.

2. 2021ITGB0001 espedientea. Alkatearen jakinarazpena.

Alkateak esan du gai hau eta hurrengoak lotuta daudela. Eraketa berrian alkatea, Karmele eta Koldo lehen moduan geratzen dira eta Xabier Ochoa sartu da. Batzordea bostetik laura pasatzen da; bai hutsik geratzen da, gehienez bost egon daitezkeelako. Orain arte ogasun batzordeko gaiak eta, gobernu batzordean zeudenekin tratatzen ziren baina orain ezingo denez horrela egin, ogasun batzorde bat sortuko da. Berez ogasun batzorde bat dago, baina pertsonaleko gaiak baleude ogasun batzorde horretan tratatu ziren.

3. 2019IBES0010 espedientea. Batzordeen berrantolaketa.

Alkateak jakinarazi du hirigintzan aldaketak egingo dituela; Xabier Ochoa bertako burua izango da. Gizartegintzan Karmelek jarraituko du, herri sustapenean Ainhoa eta planeamenduan alkateak berak. Bestalde, gazteria batzordea sortuko da eta Ainhoak eramango du. Beste batzordeak orain arte bezala jarraituko dute.

Mikel Uribeetxebarriak esan du aldaketa horiekin ez datozela bat eta bere taldeak gobernuan lekua edukitzea komenigarria dela orain arte moduan. Alkateak erantzun dio bosgarrena hutsik dagoela nahi izanez gero eta Mikel Uribeetxebarriak esan du nor izan daitekeen aukeratzetik badute egingo dutela. Alkateak erantzun dio esan ziela zein baldintza bete behar ziren.

Jarraian, bozketa egiten da eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko sei zinegotzien aurkako botoekin zera erabaki da:

LEHENA: Ion Albizu Gonzalez plangintza batzordeko presidente kargutik kentzea, alkatea plangintza batzordeko presidentea izendatuz.

BIGARRENA: Xabier Ochoa Muñoz hirigintzako batzordeburu izendatu eta Ainhoa Cabero Garcia herri sustapenekoa.



HIRUGARRENA: Gazteria batzordea sortu, bertako burua Ainhoa Cabero Garcia izanik.

4. 2019IBES0011 espedientea. Dedikazioaren aldaketa.

Udal legeak esaten duenez, oposizioko zinegotziaren dedikazioa gutxienez %50ekoa izan behar du. Soldata, gutxien kobratzen duen gobernuko zinegotziaren, Ainhoa Caberoren, %10 gutxiago. Egindako kalkuluen arabera, 18.000 euro ingurukoa izango litzateke. Jarraian, bozketa egiten da eta aho batez erabaki da Ion Albizu Gonzalez zinegotziaren dedikazioa %50era jaitea, bere urteko soldata gordina 18.470,62 eurokoa izango da.

5. 2021KKRI0001 espedientea. Kontu-hartzaitzako komunikazioa

Begoña Arenaza kontu-hartzaileak honako komunikazioaren berri ematen du:

“KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA ARETXABALETAKO UDALBATZARI, 2020.02.10eko KREDITUEN ALDAKETEN ESPEDIENTEEN ONARPENEI BURUZKOA.

APLIKAZIOZKOA DEN ARAUDIA.

- Apirilaren 27ko 2/2012 lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa
- 2013ko otsailaren 12an argitaratu eta indarrean sartu zen 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikokoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren bitartez aldatu zen. (2014ko azaroaren 20ko GAO) Azken 1372014 Foru arau honetatik, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak bertan behera utzi zituen 1.4, 2.2, 2.5, 4, 6.2 artikulua eta Xedapen Gehigarria bakarra.
- Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2019ko urriaren 29koa, Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Jarraibidea onartzen duena, 2019ko azaroaren 14ko GAOean argitaratua.
- 9/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako erakundeei aplikatu dakizkiekeen ezohiko eta presazko finantza-neurriari buruzkoa.

EGINDAKO TRAMITEAK

- Aretxabaletako Udalak 2021eko ekitaldira luzatu zuen bere aurrekontua, 2021eko aurrekontua 2020/12/31 baino lehen onartu ez zelako.
- Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2021/02/17an egindako bilkuran, 2020 ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartu zuen. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren oinarriko araudiaren arabera, ez zituen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen, bai, ordea, zor publikoaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak.
- Hala ere, 9/2020 Foru Dekretu-Araua honako hau dio: "Gipuzkoako toki-erakundeen zerga-arauak eten egin dira, 2020rako eta 2021erako ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin". Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta urte horietan gastu-araua ez aplikatzea.
- 2021eko otsailaren 10ean, kreditu-gehikuntza aurreratuaren modalitatean kredituak aldatzeko espediente bat onartu zen, 372.887,67 eurokoa, eta Diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatu zen osorik.
- Kredituen sarrera aurreratu biak kontabilizatuta, egiaztatu da ez dela aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen (1.869.074,08 €), eta zor publikoaren eta finantza-iraunkortasunaren helburua betetzen dela. 2021ean, gastu-arauaren helburua bertan behera geratu da.

Defizit-helburuak gaindituz gero, toki-erakundeek plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu beharko dute, plan hori epe luzerako kudeaketa- eta plangintza-tresna izan dadin, baina betetzemailaren ondorioz neurri gehigarriak hartu beharrik gabe. Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, aurrekontu-egonkortasuna betetzen dela egiaztatuko da 2021. urteko aurrekontuaren likidazioarekin.



2019ko aurrekontuen likidaziotik eratorritako diruzaintza likidoaren maila kontsolidatuko gerakina 3.334.082,49 eurokoa izan da, 2018an 3.060.462,39 eurokoa izan zen eta 2017an 2.019.559,53 eurokoa, kobrantza zalantzagarriko saldoak eta atxikitako finantzaketaren soberakinak deskontatu ondoren.

2019ko aurrekontuen likidaziotik eratorritako maila kontsolidatuko Aurrezki Gordina 2.121.018,83 eurokoa da, 2018an 2.771.519,52 eurokoa eta 2017an 2.182.685,76 eurokoa.

2019ko aurrekontuen likidaziotik eratorritako maila bateratuko aurrezki garbia 1.267.724,52 eurokoa da, 2018an 1.908.942,51 eurokoa eta 2017an 1.318.620,20 eurokoa. 2016ko aurrekontuan 1.675.264,89 € izan ziren, 2015eko ekitaldian 1.168.093,50 €, 2014an 1.516.886,43 € eta 2013an 1.285.815,32 €.

Oraingo ekitaldian, diru-sarrerak normaltasunez garatzen ari dira oraingo, eta egindako aurreikuspenen arabera. Aurreikuspen horiek kontuan hartu dute COVIDren pandemiaren ondoriozko murrizketa¹⁹.

2021eko aurrekontua% 24ko gehikuntzarekin onartu da, finantza-karga handitzea ekarriko duen mailegu baten bidez finantzatuta; beraz, egiten diren gastuak zorrotz kontrolatu beharko dira.

6. Galdera-eskariak.

Gorka Gabilondok esan du udalak herri sustapena izeneko batzordea duela, baina orain arte berak ez duela horrelako batzorderen berririk izan. Hortaz, galdetzen du zerbait egiteko asmorik dagoen, berak ez baitu inolako deialdirik jaso.

Koldo Zubillagak esan du herri sustapen batzorde horretan kultura, euskara etab sartuta daudela, baina pandemiagatik dena geratuta egon dela. Hala ere, koordinazio batzorde hori berriro koordinatzeko asmoa dagoela esan dio, herrira begira egiten diren aktibitateak koordinatuz.

Gorka Gabilondok esan du osoko bilkurak grabatu egiten direla, baina berak ez dituela aurkitu udalaren web orrian. Gai honetan zein den egoera galdetzen du, publiko egin behar diren ala ez... Alkateak erantzun dio orain arte daudenak ipiniko direla web orrian, baina aurrekoan arazoak egon ziren eta parte batzuk falta dira emititzeko, baina azkeneko hiru edo lau bilera laster ipiniko dira.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko 18:45 direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA